



Bizkaiko Indarkeria  
Matxistaren Behatokia  
Observatorio de la Violencia  
Machista en Bizkaia

TXOSTENA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

MATXISTAREN EGOERETAN EMANDAKO

ARRETAREN ZIFRAK BIZKAIKO LURRALDE

HISTORIKOAN

2022

AURRERAPENA

2023ko uztaila

## SARRERA

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak “Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren...” txostenaren aurrerapena aurkezten du. Behatokiak urtero argitaratzen du txosten hori Bizkaian emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoeretan ematen den arretari buruz.

Txosten horren bertsio osoa, “Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren...”, urteko bigarren seihilekoan argitaratuko da, eta esku hartzeko arlo guztien, informazio-iturrien, aldagaien eta 2022ko datuen desagregazio-mailen berri emango du.

Argitalpen horrek esku hartzeko lau esparruri buruzko datuak aurreratzen ditu. Hona hemen esparruok: gizarte-, polizia-, justizia- eta osasun-esparruei buruzkoak. Urtean zehar esparru horietako zerbitzuetan jasotako eskariari buruzko adierazle orokorrak jasotzen ditu labor- labor, bai eta aintzat hartutako aldian zerbitzuetan izandako sarreraren jarraipena egin ahal izateko eboluzio-datuak ere.

Honako iturri hauen datuak jasotzen ditu:

- Bizkaiko udalerrriak eta mankomunitateak<sup>1</sup>
- Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko saila.
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila
- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Behatokiari beren erregistroetako datuak ematen dizkioten erakundeen lankidetzaz ezinbestekoa da Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoerari eta bilakaerari buruzko ezagutza handitzeko. Lankidetzaz hori gabe, ezinezkoa izango litzateke “Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren...” seriearen edizioak egitea. Serie horrek hainbat iturritako datuak biltzen ditu 2004az geroztik, Bizkaian indarkeria-mota hori jasaten duten emakumeei arreta-zerbitzuek ematen dieten laguntzari buruz.

---

<sup>1</sup>Baliabide-mapari buruzko udal-datuak soilik sartu dira edizio honetan.

# 1. GIZARTE-ARRETA INTEGRALA


## 1.1. HARRERA

Bizkaian, bai Foru Aldundiak (BFA) bai udalerrri eta mankomunitate batzuek harrera-zerbitzu espezifikoak ematen dituzte emakumeen aurkako indarkeria-kasuei erantzuteko

Foru-aldundiak larrialdiei erantzuteko zerbitzua kudeatzen du, Bizkaiko lurralde osorako. Halaber, egonaldi ertaineko beharrei erantzuteko zentroak eskaintzen ditu.

Lurralde-mapan, udalerriek eta mankomunitateek kudeatutako baliabideak ere ageri dira; harrera-etxebizitzak dira gehienbat<sup>2</sup>. Ondoko irudiak erakusten du laguntza-mota horrek 2022an izan duen lurralde-estaldura:

### 1. irudia



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateetako datuetan oinarrituta egina

<sup>2</sup> Barakaldok harrera integraleko zentro bat du.

## BFAko Larrialdiko Harrera Zerbitzua

2022an, **170 emakume** zeuden Foru Aldundiaren Larrialdiko Harrera Zerbitzuan. Erdia baino pixka bat gutxiago (% 46,5) beren seme-alabekin daude; guztira **115** (guztiak adingabeak). Guztira, **285 pertsona** dira.

Hiru kopuru horiek 2004tik beren serieetan izandako kopuru handienak dira.

Datuek azken 19 urteetan izan duten bilakaerak (1. taulan jaso da dago) erabiltzaileen bolumenak gorabeherak izan dituela erakusten du. Azken bi urteetan erabiltzaileen kopurua % 25 eta % 30 igo da, hurrenez hurren. 2021eko irailean, Zerbitzuko plaza-kopurua handitu egin zen, 15 plazatik 24ra, eta, beraz, zuzkidura berriarekin igaro da 2022. urte osoa.

1. taula. BFAko Larrialdiko Harrera Zerbitzua.  
Emakumeak, seme-alabak eta mendeko beste pertsonak. 2004-2022

	04	05	06	07	08	09	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22
Emakumeak	98	87	103	108	102	86	55	69	93	81	63	97	94	90	105	112	105	131	170
Seme-alabak	80	64	60	74	73	68	45	74	79	70	43	74	82	70	100	85	82	96	115
Beste perts.	*	*	*	*	*	*	1	0	1	0	1	0	0	2	3	1	4	1	0
<b>GUZTIR A</b>	<b>178</b>	<b>151</b>	<b>163</b>	<b>182</b>	<b>175</b>	<b>154</b>	<b>101</b>	<b>143</b>	<b>173</b>	<b>151</b>	<b>107</b>	<b>171</b>	<b>176</b>	<b>162</b>	<b>208</b>	<b>198</b>	<b>191</b>	<b>228</b>	<b>285</b>

(\*) 2010ean hasi zen datu hori jasotzen.


Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina. BFA.

Baliabidean egindako

**egonaldiaren batez besteko**

**iraupena 32 egunekoa** izan zen 2022an, aztertutako aldiko bolumen handiena. 2004arekin alderatuta, 27 egun luzatu da batez besteko egonaldia.

1. grafikoa. BFAko Berehalako Harrera Zerbitzuaren batez besteko egonaldia (egunak). 2004-2022 bilakaera



Oharra: 2021eko datuak 01/01etik 08/16ra bitartekoak baino ez dira.

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina.

Adierazlearen ibilbideak erakusten du **gero eta konplikatuagoak direla** zerbitzuan artatutako **kasuak**, eta gero eta gehiago direla indarkeria-egoerekin lotutako arazoak. Erakusten du, halaber, **sistemak zailtasunak** dituela beste erakunde edo arreta-eremu batzuen eskumenekoak diren egoitza-baliabideetako harrera-premiari bizkortasunez erantzuteko.

## Indarkeria-mota eta erasotzailearekiko harremana

- **Bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeria-kasuak dira nagusi: **164 emakume guztira (% 97)**, eta horietatik 150 kasu berriak dira. Ia kasu guztietan egungo bikotekidea da erasotzailea (148 emakume), bikotekide ohiarekin alderatuta.
- **Familia barruko indarkeriagatik**, hiru emakume daude zerbitzuan, kasu berriak guztiak.
- **Sexu-indarkeriaren** biktima diren beste hiru emakume daude (aurreko bi esparruetatik kanpo); horietako bi urte honetan sartuak dira.


2022an sartu ziren emakumeen ezaugarriak (kasu berriak).

**Jaioterriaren** arabera, emakume erabiltzaileen % 64 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak ziren; guztira, 99 emakume, **aldi horretako balio absolutu handiena**, hain zuzen.

Aurreko txostenetan adierazi bezala, 2004tik aurrera baliabide horren erabiltzaileen **profila** aldatu egin da jaioterriari dagokionez.

Atzerriko emakumeen bolumena handitu egin da balio absolutu eta erlatiboetan, eta EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeen eskariak, berriz, behera egin du. 2007tik, ia urtero, maila handiagoetan dago atzerrian jaiotakoen ehunekoa.

**2. grafikoa. Berehalako Harrera Zerbitzua BFA. Atzerriko herrialdeetan jaiotako emakumeen portzentajea, 2004-2022**



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina.

Egoera horren ondorioz sortzen diren hizkuntza-oztopoak gainditzeko, Larrialdiko Harrera Zerbitzuak itzulpen-zerbitzua du, telefono bidezkoa zein aurrez aurrekoa. Azken urtean, arabiera eta frantsesa erabili dira interpretazio-modalitate horietan.

**Adinari** erreparatuz gero, 2022an ere, **heldu gazteena** da profil nagusia: 10 erabiltzailetik ia zortzi ez dira 40 urtetik pasatzen (% 75). Beste urte batzuetan bezala, adin-tartea zabala da, 18 eta 74 urte bitartekoa.

2022ko emakume erabiltzaileen % 22k **desgaitasun- eta/edo adikzio-egoeren** (batzuetan biak) ondoriozko behar espezifikoak ditu, eta horiek baldintzatu egiten dituzte esku-hartzea eta terapia.

Hain zuzen, desgaitasunari dagokionez, egoera horretan dauden emakumeak –desgaitasun bat edo gehiago dituztenak– urtero sartzen dira baliabidean. Ondoko taulan, 2012tik aurrerako datuak jaso dira. Aipatzekoa da 2015. urtea, erabiltzaileen % 18,5 baitziren.

**2. taula. BFAko Larrialdiko Harrera Zerbitzua. Desgaitasuna duten emakumeak. 2012-2022**

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Desgaitasuna duten emak. Kop.	3	6	9	18	5	11	8	10	14	8	4
Erabiltzaile guztiekiko %	3,2	7,4	14,3	18,5	5,3	12,2	7,6	8,9	13,3	10,0	2,6

Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina. BFA.

Larrialdiko Harrera Zerbitzuko egonaldia amaituta, erabiltzaileen herenak baino gehixeagok (% 36,5) **aldi baterako harrerako** modalitatean jarraitu behar izan zuten (foru-aldundiarena edo udalarena) edo beste foru-zerbitzu batzuen: **62 emakume, 60 adingaberekin**, aldi horretako zifrarik altuenak balio absolutuetan. Aukera ohikoena izan da foru-egonaldi ertaineko harrera (% 66), eta neurri txikiagoan udal-baliabideak (% 26). Gainerako ehunekoa Arreta Komunitarioko Zerbitzuei edo BFAko beste batzuei dagokie.

## BFAko egonaldi ertaineko harrera-zentroak

(Behin-behineko datuak)

Egonaldi ertaineko harrerako foru-zerbitzuak 72 pertsonari eman zion arreta 2022an: 39 emakumeri eta haien 33 seme-alaba adingabeei (17 neskato eta 16 mutiko).

### Indarkeria-mota eta erasotzailearekiko harremana

- **Bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeria-kasuak dira nagusi: **33 emakume** guztira (% 85), eta horietatik 25 kasu berriak dira (2022an sartuak). Kasu guztietan egungo bikotekidea da erasotzailea.
- **Familia barruko indarkeriagatik** kasu bat dago, aurreko urtean sartu zena (aurreko kasua).
- 2022ko erabiltzaileen artean, bost emakume daude zerbitzuan **sexu-indarkeriako** egoeren ondorioz (aurreko bi esparruetatik kanpo). Bi kasu berriak dira.

Egonaldiaren batez besteko iraupena 190 egun ingurukoa da, sei hilabete baino gehixeago.

Erabiltzaile berri gehienak (**% 70**) **Aldundiko Larrialdiko Zerbitzutik zetozen**. Neurri txikiagoan, beste foru-zerbitzu batzuetatik (% 26); eta gainerako ehunekoa (% 4) udal-mailako oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik.

Haien ezaugarriei dagokienez, atzerriko herrialdeetan jaiotakoen proportzioa handia izan zen urte hartan ere (% 70), eta bereziki nabarmentzen dira adinari lotutako kalteberatasun-egoerak –kasu honetan, adin-talde gazteenak–; izan ere, 18 eta 30 urte bitartekoak ziren emakumeen % 30. Egonaldi ertaineko zentroetan dauden **hamar emakumetik ia bederatzik ez zuten 40 urte baino gehiago** 2022an.

## 1.2. AHOLKULARITZA JURIDIKOIA


Bizkaiko lurralde historikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ematen duen laguntza juridikoko zerbitzuarekin batera, **auzi aurreko aholkularitza juridikoko doako zerbitzuak** ere badira Bizkaiko zenbait udalerritan eta mankomunitatetan.

Zerbitzu horien bidez, bi indarkeria-mota horietakoren baten biktima diren emakumeei jakinarazi nahi zaie zer aukera ematen dizkien ordenamendu juridikoak: zer eskubide dituzten, nola eta noren aurrean salatu behar diren gertaerak, nola eskuratu baliabide juridikoak eta sozialak... Eta horretaz gain, eta beharrezkoa izanez gero, prozesu judizialean ere esku hartzen da.

Mapa honek erakusten du laguntza-mota horrek 2022an izan duen lurralde-estaldura.

### 2. irudia

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOIA  
AHOLKULARITZA JURIDIKOIA 2022



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateetako datuetan oinarrituta egina




## BFAko Aholkularitza Soziojuridikoko Zerbitzua

BFAko **Aholkularitza Soziojuridikoko Zerbitzuak**, besteak beste familia-zuzenbideari eta tratu txarrei edota sexu-erasoei buruzko informazio juridikoa ematen duenak, emakumeen **302 kasu berri** jaso zituen 2022an. % 34k aholkularitza behar izan zuten bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako edo etxe barruko indarkeriagatik (104 emakume), eta % 6k, sexu-indarkeriagatik, aurreko bi esparru horietatik kanpo (24 emakume). Horrek esan nahi du zerbitzuak lagundutako **hamar erabiltzaile berritik lauk baino pixka bat gehiagok** emakumeen aurkako indarkeria-mota horietako batzuekin lotutako egoera zutela (% 42).

Aurreko urtearekin alderatuta, 2022ko zifrek erakusten dute **% 25,5 igo direla indarkeria-kasuak**, nahiz eta bolumena oraindik ez den iristen 2020ko osasun-krisiaren aurreko urteetako mailara. Beste edizioetan adierazi den bezala, besteak beste, 2020an bitzako egoeraren ondorioz sortutako ziurgabetasun-egoera islatzen dute datuek. Izan ere, egoera horrek inhibizio-faktore gisa jokatu du bizi-aldaketako prozesuei aurre egiteko, hala nola Zerbitzu honetan eskaintzen den prestazioarekin lotutakoak.

Grafikoak erakusten du zerbitzua erabiltzen duten emakumeen artean tratu txarren intzidentzia **gero eta handiagoa dela (urtean zehar baliabidera joaten diren erabiltzaileen artean erregistratutako tratu txarren kasu berriak)**. Arreta jaso duten erabiltzaileen guztizko bolumenaren gorabeherak gorabehera, kasuistika horrek gorakada erregularra du ia etenik gabe.



Oharra: 2020tik aurrerako datuek aurrez aurreko arreta baino ez dute barne hartzen, urte horietan arreta telematiko ere erregistratu da. Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina

## Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

2022an **89 erabiltzaile berriri** eman zitzaien arreta indarkeria-mota horrengatik. Horien artean, batez ere **ezkontidea edo bikotekidea** da erasotzailea (**% 74**), gainerako kasuetan, berriz, ezkontide edo bikotekide ohia (% 26).

Kopuru hori pandemiaren aurreko ohiko kopuruen azpitik dago; izan ere, 2013tik 2019ra ehundik gorakoa zen kasuen bolumena. Aurreko urtearekin alderatuta, 2022an **% 17ko igoera** izan da, eta horrek esan nahi du pixkanaka berrezartzen ari dela eskariaren maila.

Azken urteetako ohiz kanpoko datuak alde batera utzita, aldi osoan nabari da **bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeriak pixkanaka gora egin duela** foru-zerbitzu horretan.

4. grafikoa. BFAko Arreta Soziojuridikoko Zerbitzua. Bikote/bikote ohiaren indarkeriagatik arreta jaso duten emakumeak (kasu berriak). 2005-2022



Oharra: 2020tik aurrerako datuak aurreko arreta baino ez dute barne hartzen, urte horietan arreta telematikoa ere erregistratu da. Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Bertintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina.

Erabiltzaile berri horien ezaugarriari dagokienez, ohikoa denez, erdiko adinetako emakumeak dira, batez ere, baliabidean daudenak: **hamar erabiltzailetik ia zazpi** (% 67,4) 31 eta 50 urte bitartekoak dira (% 39 dira 41 eta 50 urte artekoetan).

Aurreko urteetan gertatutakoaren antzera, erabiltzaile gehienak EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak dira: % 79, eta % 21 dira atzerrian jaiotakoak.

% 6,7k desgaitasunen bat du.

Erabiltzaileen herenak (29 emakumek) salaketa jarria zuen Zerbitzura joan aurretik, eta haietatik % 66k Babes Agindua zuen bere alde.

## Familia barruko indarkeria

Familia barruko indarkeriagatik, 2022an, Zerbitzuak **15 emakume kasu berri** eman zien arreta aurrez aurreko kontsultan, eta erasotzaile nagusia **ondorengoa (% 53) edo aurrekoa (% 40)** izan zen gehienetan, familia-esparruko beste harreman batzuen aldean.

Aipatutako kopuru horiei dagokienez, erdiak baino gehiago (% 53) 50 urtetik gorako emakumeak dira. Indarkeria-mota horrek maiztasun handiagoa erakusten du adin-talde horretako emakumeen eta 18 urtetik beherakoen artean (2022an bi kasu baino ez ziren erregistratu, biak 14 urtetik beherakoak).

Ez da ohikoa familia barruko indarkeriaren arloan atzerritar jatorriko erabiltzaileen kontsultak jasotzea zerbitzu honetan, eta hala gertatu da 2022an ere, kasu bakarra erregistratu baita.


Erabiltzaileen erdiek (zortzi emakume) gertatutakoa salatua zuten Zerbitzura joan aurretik, eta horietako bik Babes Agindua zuten beren alde.

## Sexu-indarkeria

2022an, Foru Zerbitzuak aholkularitza juridikoa eman zien (aurrez aurreko kontsultak) **24 emakume kasu berri** sexu-indarkeriaren ondorioz —bikotearen edo familiaren esparrutik kanpo—.

**Serieko bigarren baliorik handiena** da, osasun-krisiaren aurreko urtean (2019) erregistratutako gehieneko 25 kasuen ondotik. 2020an behera egin ondoren, hurrengo bi urteetan % 55 eta % 41 gora egin dute, hurrenez hurren, indarkeria-mota horren kasuak zerbitzuan.

5. grafikoa. BFAko Arreta Soziojuridikoko Zerbitzua. Sexu-erasoagatik arreta jaso duten emakumeak (kasu berriak). 2005-2022




Oharra: 2020tik aurrerako datuek aurrez aurreko arreta baino ez dute barne hartzen, urte horietan arreta telematikoa ere erregistratu da. Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina.

### 1.3. ARRETA PSIKOLOGIKOA

Bizkaian, Foru Aldundiak 1992az geroztik ematen du arreta psikologikoko zerbitzu espezializatu familia eta esku hartzeko, tratu txarren eta sexu-erasoen egoeretan. Zerbitzu hori deszentralizatu dago eta hainbat arreta-gune ditu Bizkaiko lurraldean.

Era berean, arreta psikologikoko programak kudeatzen dituzte zenbait udalerrik eta mankomunitatek. Gehienak programa orokorrak dira, eta ez daude emakumeen aurkako indarkeriara berariaz bideratuta; programa horietako batzuek biztanleria osoa dute jomuga, eta beste batzuek, berriz, emakumeak soilik. Kasu askotan, indarkeria matxistarekin loturiko arazo espezifiko bat hautematen denean, **biktimei arreta emateko programa foral espezializatura bideratzen dira** pazienteak.

#### 2. irudia



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateetako datuetan oinarrituta egina

## BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua (Esnatu)

BFAk **familian esku hartzeko arreta psikologikoko zerbitzua** ematen du **tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetan** (helduentzat zein adingabeentzat). 2006ra arte, Bilbon zentralizaturik zegoen zerbitzu hori. Harrezkerotik, eta hurrengo hamarkadan zehar, deszentralizatu egin zen pixkanaka, eta nabarmen hobetu zen herritarrek arreta psikologiko espezializatu hori jasotzeko duten aukera. **2022an zazpi arreta-gune ditu** lurraldean<sup>3</sup>: Bilbo, Markina-Xemein, Zalla, Ugao, Durango, Gernika-Lumo eta Igorre.

Programaren egitura aldatzeaz gain, zerbitzua emateko ordutegia zabaldu ere egin da, behar bezala erantzun ahal izateko urtez urte hazten doan eskaerari, kopuruen bilakaerak erakusten duen moduan. 2022an 676 orduko prestazioa eman da astean.

Zerbitzua hainbat programatan ematen da, estaldura ematen dien kolektiboen eta arazoaren arabera. 2022an **1.511 pertsonak** jaso zuten arreta zerbitzu honen bidez (% 92,1 emakumeak ziren). Haietatik, **1.383 emakume eta neska inguru** programak jorratzen dituen indarkeria-moten baten **biktima** izan ziren.

Ondoko taulan, urtean zehar arreta jaso duten pertsonen (helduak eta adingabeak) banaketa jaso da, zerbitzua osatzen duten programen arabera.

**3. taula. BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua. Arreta emandako pertsonak arazoaren, sexuaren eta adinaren arabera. 2022.**

HELDUAK	GUZTI RA	EMAKUMEAK	
		GIZONAK	
	<b>1.376</b>	<b>1.278</b>	<b>98</b>
- Tratu txarren biktimak familia-esparruan	1.075	1.044	31
- Sexu-erasoen biktimak	150	149	1
- Zeharkako biktimak	89	77	12
- Erasotzaileak	62	8	54
<b>ADINGABEAK</b>	<b>135</b>	<b>113</b>	<b>22</b>
- Familia barruko eta familiaz kanpoko tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktimak	134	113	21
- Erasotzaileak	1	0	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.511</b>	<b>1.391</b>	<b>120</b>

Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.


<sup>3</sup> Txosten hau ixtean (2023ko uztaila), beste hiru arreta-gune daude: Portugalete, Leioa eta Getxo.

Zerbitzuan arreta eman zaien heldu gehienek tratamendua jaso dute familia-esparruan gertatutako indarkeria-egoera baten ondorio psikologikoak gainditzeko (bikotekidearen/bikotekide ohiaren edo familia barruko indarkeria), gehienetan kronikoa eta larria.

2022an eskaera hori egin zuten 1.075 pertsonetatik % 97 emakumeak dira. **1.044** emakume dira guztira. Horietatik 465 kasu berriak dira (urtean irekitako edo berriro irekitako kasuak), hau da, % 44,5.

### Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Erasotzailearekiko harremanaren arabera, paziente berrien % 93 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-egoeran zegoen: **431 emakume**. Hau da, 2022an **hilean 36 emakumek hasi zuten terapia** programan, indarkeria-mota horren ondorioz. (2006an, 23 kasu zeuden hilean).



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina

Gehienek (**% 80**) **seme-alabak zituzten** beren kargu. Adinari erreparatzen badiogu, 2022ko datuek ohiko banaketa erakusten dute adin tarteen arabera: **erdiko adinetako** emakumeak ziren gehienak: ia bi heren 31 eta 50 urte bitartekoak ziren (emakume gehien dituen adin tartea, aldiz, 41 eta 50 urte bitartekoa izan zen, % 37 baitziren).

**Jaioterriari** dagokionez, EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeena da eskari handiena zerbitzu honetan. 2022an % 69 izan ziren, atzerriko herrialdeetan jaiotakoena, berriz, % 31. Azken horiak 135 izan ziren eta, ohikoa den bezala, % 71 Latinoamerikakoak ziren.

Zazpi emakumek **desgaitasun** fisikoa, psikikoa edo sentsoriala zuten (% 1,6).

Aipatu beharra dago zerbitzuaren eskaeren **lurralde-banaketa oso zabala** dela, eta horretan lagundu du zerbitzua pixkanaka deszentralizatzeak eta, horrenbestez, irisgarritasun geografikoa hobetzeak. 2022an, Bizkaiko 62 udalerritako emakumeei (kasu berriak) eman zitzairen arreta bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik. Biztanleriari dagokionez, udalerririk horietan biltzen dira Bizkaiko emakumeen % 93,2.

Udalerrien araberako xehetasunari erreparatzen badiogu, biztanleria-bolumen handiena duenez, Bilbok du arreta eman zaien emakumeen ehuneko handiena (% 29,5), eta, ondoren, urrutira, Barakaldok (% 7), baina 10.000 emakumeko tasarik handiena, 25.000 biztanletik gorako udalerrien artean, Durangok du (11,2), **lurraldeko tasaren ginetik (7,3)**. Hala ere, aurreko urteetan bezala, zerbitzua deszentralizatua duten hiru mankomunitatek dituzte tasa handienak: Arratia (29,4), Lea-Artibai (22,2) eta Enkarterriak (14,6) dira biztanleria-indizearen arabera baliabiderako ekarpen gehien egiten dituzten erakundeak.

### Familia barruko indarkeria


Familia barruko indarkeriagatik, zerbitzuak **34 emakume** kasu berri eman die arreta urtean zehar (aurreko urteko kopuru bera). Gehienak aurreko ahaideak dira erasotzaileak (% 71) eta, neurri txikiagoan, ondorengoak (% 26). Gainerako ehunekoak, albokoak (% 3).

### Sexu-indarkeria

2022an, sexu-erasoa jasateagatik arreta emandako emakumeen kopurua handiena izan zen Arreta Psikologikoko Zerbitzuan: **149 emakume**.

Aztertutako aldiaren goranzko joera nabari da serie honetan, batez ere 2014tik aurrera. Aldiaren hasierako kopurua halako 4 baino handixeagoa da 2022ko datua (35 kasu 2005ean).

7. grafikoa. BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua. Sexu-erasoagatik arreta jaso duten emakumeak. 2005-2022



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina

Kasu berrien kopurua ere aztertutako aldiko bigarren handiena izan zen: 72 emakume. Indarkeria-mota horretan ohikoa denez, adin-talde gazteenek jasan zituzten erasogehien; hain zuzen, **erdia 18 eta 30 urte bitartekoak dira**.

Indarkeria-mota hori jasan zuten emakumeen % 33 atzerriko herrialdeetan jaioa zen.

## Adingabeak

2022an, indarkeriaren biktima izan ziren **134 adingaberi** lagundu zien programak: 113 neska eta 21 mutil. Nesken kopuruak serieko **baliorik altuena** berdintzen du, eta, oro har, adin txikikoen guztizkoa da aldiko bigarren balio handiena.

Gutzizko horretatik 63 kasu berriak dira (% 47), eta honako ezaugarri hauek dituzte:

- 55 neska (% 87,3) eta 8 mutil (% 12,7) izan ziren. Proportzioan alderik handiena duen urtea da.
- Sexuaren eta indarkeria-motaren arabera, nesken % 56,4k sexu-erasoa edo sexu-abusua jasan zuten (familia barruan eta familiatik kanpo); % 27,3k bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik jasan zuten indarkeria; eta gainerako % 16,4k etxe-esparruan jasan zituzten tratu txarrak. Mutilen kasuan, aurten azken kategoria horretan daude % 100.
- Adinari erreparatuta, 5 urte baino gutxiagotik 17 urte bitarteko adingabeei lagundu zitzairen 2022an. Batez ere, 13 eta 17 urte bitarteko **nerabeei (% 80)**; izan ere, hiru indarkeria-moten kasuak ageri dira adin-tarte horretan.
- Indarkeria-motaren eta adinaren arabera, familia barruko indarkeriak adin guztietako adingabeei eragin die. 2022an, sexu-indarkeriako kasuak 10 urtetik gorakoek jasan zituzten eta neskek soilik. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasu guztiak ere neskek jasan zituzten, 14 eta 17 urte bitartekoek, hain zuzen.

2022an erregistratutako datuen arabera, 2004tik 2019ra bitartean, familian bertan edo kanpoan tratu txarrak eta/edo sexu-erasoak jasan dituzten adingabeen tratamendu berrien **927 espediente** ireki edo berriz ireki dira; **neskenak** dira gehienak (**% 73,5**).



## 1.4. ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOA ETA PSIKOSOZIALA: ARRETA KOMUNITARIOKO ZERBITZUAK.

### 1.4.1. "Zerizan" esku-hartze sozioedukatibo, psikosozial eta aholkularitza soziojuridikoko zerbitzua

“Zerizan”<sup>4</sup> programaren helburua da emakumeek eta haien familiek pairatzen dituzten indarkeria matxistaren egoeretatik sortutako kalte soziala jorratzea ikuspegi integralarekin. Honako neurri hauen bidez garatzen da: akonpainamendu soziala, esku-hartze sozioedukatiboa, esku-hartze psikosoziala, aholkularitza soziojuridikoa eta baliabide alternatiborik ez duten emakumeei **bizileku-laguntza** ematea.


2022an 186 pertsonak jaso zuten arreta zerbitzu horren bidez: 90 emakumek eta 96 seme-alabek (% 75 adingabeak).

Kasu guztietan **bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeria da.

Emakumeen % 47 urte berean sartu ziren programan: 42 kasu berri.

Adinari dagokionez, **bi heren pertsona heldu gazteak dira, 40 urtetik beherakoak**; 21 eta 30 urte bitartekoak dira ugariak (% 31). Hala ere, batez besteko adina 40 urtekoa da; izan ere, adin-tartea 17 urtetik 83 urtera bitartekoa da, eta horrek erakusten du oso askotarikoak direla erabiltzaileen bizi-prozesuak eta -etapak.

Erabiltzaile berri guztiengan identifikatu da indarkeria psikologikoa, baina % 30 baino gutxiagoan modu eksklusiboan. Indarkeria-mota hori ezin da gainerakoetatik bereizi; izan ere, beste era bateko indarkeria-ekintzak gertatzen direnean, kalte psikologikoa eragiten dute beti. Horrek esan nahi du kasu gehienetan —**hamar emakumetik zazpitan**— **hainbat indarkeria-mota gain jartzen direla.**



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina

<sup>4</sup> Etxeko eremuan Emakumeen aurkako Indarkerian Espezializatutako Familiar Esku Hartzeko Programaren ondorio da. Programa horren bidez, laguntza psikosoziala ematen zitzaizen tratu txarren biktima ziren emakumeei, tratu txarren emalea bizi zen etxean zeudenei edo etxera itzultzzen zirenei, eta haien ardurapeko seme-alaba adingabeei.

Erabiltzaile berrien %38k (16 emakume) seme-alabak dituzte beren kargura, gehienak adingabeak. 10 neska (% 42) eta 14 mutil (% 58) dira, eta batez besteko adina, berriz, 7 urtekoa da. Adin-tarteei dagokienez, hamaika urtetik beherakoak dira ia guztiak (nesken % 100 eta mutikoen % 93). Garrantzitsua da nabarmentzea **erdiak 5 urtetik beherakoak direla, talderik kalteberena.**

Erabiltzaileen ia % 30ek behar izan zuten Zerbitzuak eskaintzen duen **bizileku-laguntzaren** modalitatea: 12 emakumek, 11 seme-alabarekin. Egonaldiaren iraupena sei hilabetetik beherakoa (% 25), sei hilabete eta urtebete artekoa (% 58) eta urtebetetik gorakoa (% 17) izan zen.

#### 1.4.2. "Sua" Arreta Psikosozialeko eta Familian Esku Hartzeko Programa, indarkeria matxistaren biktima diren eta baztertuta edo/eta babesik gabe geratzeko arriskuan dauden emakumeen familia- edo bizikidetz-unitateei arreta emateko.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei (eta haien familiei) zuzendua dago **Sua** programa, baztertuta eta/edo babesik gabe geratzeko arriskuan dauden emakumeei laguntzeko, indarkeria horren ondorioei aurre egiteko, laguntza sozioedukati-boaren eta/edo psikosozialaren bidez. Osagarri gisa, bizileku-laguntzako prestazioak eskaintzen ditu, behar denean.

2022an 72 pertsonak jaso zuten arreta programa horren bidez: 35 emakumek eta 37 seme-alabek (36 adingabeak).

Erabiltzaileen erdiak gutxi gorabehera (18 emakume, hau da, % 51,4) urtean zehar sartu ziren programan (kasu berriak dira):

- Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria da programa erabiltzeko arrazoi nagusia erabiltzaile berri ia guztientzat (17 emakume), eta batzuetan beste indarkeria-mota batzuk ere badaude.
- 24 eta 58 urte bitartekoak dira, eta 34 urtekoa da batez besteko adina. Beste programa batzuetan bezala, **40 urtetik beherako** emakume heldu gazteak dira gehienak (**% 7** ).
- Kasu guztietan **4 indarkeria-mota** identifikatu dira: fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa eta soziala. Bi kasutan, gainera, sexu-indarkeria.
- Programaren hamar erabiltzailetik sei atzerriko herrialdeetan jaiok dira.
- Gehienek **seme-alabak dituzte beren ardurapean (% 65).**
- **Erdiak** programak eskaintzen duen bizileku-laguntza erabili behar izan zuten (9 emakumek, 13 adingaberekin), sei hilabete eta urtebete bitarteko egonaldiekin (% 78) eta txikiagoekin (% 22).

### 1.4.3. Beregain-Ailara programa

Programa honen helburua da bazterturik eta babesik gabe dauden guraso bakarreko familien buru diren emakumeak gizarteratzeko premiei erantzutea, eta bizileku-arretako zerbitzua ematea beharrezkoa den kasuetan.

Urtean zehar, 12 emakumeri (15 adingaberekin) eman zaie arreta programa honen bidez. Ia erdiak kasu berriak dira: 5 emakume 6 adingaberekin (2 neska eta 4 mutil):

- Indarkeria-motaren eta erasotzailearekiko harremanaren arabera, hiru **indarkeria-motetan** banatzen dira kasuak: bi kasu bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindako indarkeriari dagozkio, bi kasu familia barruko indarkeriari eta kasu bat sexu-indarkeriari (aurreko bi mota horietatik kanpo).
- Beregainen arreta jaso duten emakumeak oso gazteak dira, **18 eta 30 urte bitartekoak baitira % 80**.
- Kasu guztietan programako **bizileku-laguntzako** zerbitzua behar izan zuten, eta sei hilabete baino gutxiagoko **egonaldi laburrak** egin zituzten.


## 1.5. FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA, GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUA

BFAko **Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familian esku hartzeko programa** 2016ko azken hiruhilekoan jarri zen martxan. Programa hori honako hauei zuzendua dago: genero-indarkeriako testuinguruetan bizi izan diren adingabeei; haien amei edo zaintzaileei; haien aitei, erasotzaileak ez direnean, eta haiekin bizi diren senideei; haien aitei, erasotzaileak direnean (betiere esku-hartzeak adingabeak –edo ama– arriskuan jartzen ez baditu); eta bikotekideak hildako emakumeen adingabeei.

2022an, guztira **94 pertsona** artatu ditu programak: **56 adingabe eta 38 emakume** (adingabe horien amak, genero-indarkeriaren biktimak). Guztira, 38 familiatako pertsoneri eman zitzaizen arreta.

2017 (programaren lehen funtzionamendu-urte osoa) eta 2018 artean, bikoiztu egin zen arreta jaso zuten adingabeen eta familien kopurua. 2019an kopuru horrek hazten jarraitu zuen, eta urte horretan serieko handiena izan zen: aurreko urtean baino 13 familia gehiagorekin egin zen esku-hartzea, eta adingabeen kopuruak % 38 egin zuen gora (69 adingabe). 2020ko osasun-krisiaren urtean, beste zerbitzu eta programa batzuetan ikusten den bezala, behera egin zuen kasuen kopuruak (17 adingabe gutxiago). Urte horretako jaitsieraren ondoren, 2021ean eta 2022an igoera txikiak izan dira kasuen bolumenean, % 4 ingurukoak.

9. grafikoa. Genero Indarkeriaren Biktima diren Adingabeen Familian Esku Hartzeko Programa (BFA). Arreta jaso duten pertsonak. 2017-2022




\*Beste pertsona batzuk: aita ez erasotzaileak eta bizikide diren senideak

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina

2022an artatutako kasuen % 45 **berriak** izan ziren, **31 adingaberenak**; 18 neska (% 58) eta 13 mutil (% 42).

Adinaren arabera, 11 urtetik beherakoak dira neska gehienak (% 89). Mutiletan, adin horien ehunekoa handia bada ere, zenbait puntu beherago dago (% 77). Sexuaren eta adinaren araberako banaketan, azken tartearakiko aldeak ikusten dira normalean, eta tarte horretan mutilak soilik sartzen dira.

10. grafikoa. Genero Indarkeriaren Biktima diren Adingaberen Familiar Esku Hartzeko Programa (BFA). Adingabeak (kasu berriak) sexu eta adinaren arabera. 2022



2022an bai erregistratu ziren adin horretako bi neska. Hala ere, programaren sei urteko funtzionamenduaren datuak batera hartuta, programa horretatik igaro diren **15-17 urteko nerabeen kasuen % 80** mutilak dira.

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailaren datuetan oinarrituta egina


Hamar adingabek **Babes Agindua** dute aitarekiko (% 32). Programa abian jarri zenetik, **zifrarik handienak** dituen urtea da, bai absolutuak, bai erlatiboak.

Era berean, beren amei dagokienez, serie historikoko **baliorik handienak** erregistratu dira: **ia guztiak (% 95)** dute edo izan dute beren alde emandako Babes Agindua (19 emakume).

## 1.6. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO TELEFONO BIDEZKO INFORMAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZU ESPEZIALIZATUA 24 ORDUTAN (900 840111)

2022an, Zerbitzuak emandako datuen arabera, guztira, **1.538 dei jaso ziren Bizkaitik**, hau da, batez beste 128 dei hilean.

Ondoko grafiko honek erakusten duenez, zerbitzuaren erabileraren bilakaera Bizkaian, hasierako urteetan jaso ziren deietan hazkunde nabarmena izan ondoren, 2008tik hona egonkortu egin da, nolabait ere, 1.700 dei inguru urtean. 2017an deien bolumena jaitsi egin zen berriz ere, eta 1.500 dei inguru jaso dira azken urteetan. Zerbitzuak emandako datuen arabera, 2022an deien kopurua % 7,2 jaitsi zen aurreko ekitaldiarekiko.



(\*) Dei egokiak: Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotura duten deiak bakarrik.

(\*\*) Zerbitzuaren datu-basean egindako aldaketa batek 2011ko eta 2012ko datuen doikuntza desberdina eragin zuen erregistroan eta, beraz, ezin dira erreferentziarako aldiko gainerako urtekoekin erkatu, bilakaeraren ikuspegia izateko. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetatik abiatuta egin da: 2007ko eta 2008ko datuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emanak; 2009-2011, Herrizaingo Sailak, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez; 2012, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea; 2013tik aurrera, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak emandakoak.

2022an jasotako dei guztietatik, % 38,4 genero-indarkeriari buruzko estatu mailakoinformazio eta aholkularitza juridikoko telefono bidezko Zerbitzuak (016) igorritakoak dira. Zerbitzu horrek Bizkaitik egindako 1.230 dei jaso ditu, eta horietatik % 48 EAeko zerbitzura bideratu dira, hau da, 590 dei.

Indarkeria-motaren araberrako azterketak erakusten du dei gehienak, alegia, % 85,6 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotuta daudela. % 7,3 sexu-indarkeriaren loturik daude, eta % 7,1, berriz familia barruko genero- indarkeriarekin.

Aipagarria da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotutako deiak egin dituzten pertsonen % 82,1ek, arreta eman zaien unean, biktimari eragindako tratu txarren kontzientzia-maila ertaina (% 42,7) edo handia (% 39,4) dutela, eta kasuen % 61,4an, biktimak gero eta tentsio handiagoko egoeretan egon dira.

Bestalde, zerbitzuak erregistratu egiten ditu jasotzen dituen deien oinarrian diren arrazoiak; dei baten atzean arrazoi bakar bat edo gehiago izan daitezke. Txosten honen erreferentzia-urtean, deien % 39,6 arrazoi bakarrak eragindakoak dira, eta % 60,4 arrazoi bat baino gehiagok eragindakoak izan dira. Bi multzo horietan, deia egiteko arrazoi nagusiak akonpainamendu eta jarraipen telefonikoa, informazioa eta orientazioa izan dira.

Esku-hartzeen kopurua eta mota ere erregistratzen dira. Kasu gehienetan, (% 90,8) esku-hartze bat baino gehiago egiten da, eta deien atzean dauden arrazoiei erantzuten diete esku-hartze horiek. Gainera, bada esku-hartze mota bat, laguntza emozionala, arrazoi gisa erregistratzen ez dena, baina beharrezkoa izaten da esku-hartze bat baino gehiago egiten diren deien % 80,4an.

### Deiak egin dituzten pertsonak

Batzuetan, pertsona batek berak behin baino gehiagotan deitu du Zerbitzura; hori dela eta, erregistratutako 1.538 deiak **1.109 pertsonari dagozkie**. 2021eko datuaren aldean, 2022an 20 lagun gutxiago kontabilizatu dira.

Jasotako deien kopuruak bezala, zerbitzu hori erabili duten pertsonen kopuruak ere, nabarmen egin du gora aztertutako epearen (2006-2022) hasierako urteetan. Igoera horren ondoren, egonkor mantendu da erabiltzaile-kopurua, 1.000ren inguruan.

2022an Zerbitzuarekin harremanetan jarri diren **hamar lagunetik bederatzi emakumeak dira, 2006an Zerbitzua abiatu zenetik gertatzen ari den bezala**.

Kontsultaren bat egiten duten pertsonen banaketa aurreko urteko zenbakiak erakusten zuten bera da: % 70,2 indarkeriaren biktima diren emakumeak dira; % 23,6 biktima diren emakumeen hurbileko edo familiako pertsonak; eta % 6,2 profesionalak dira.

Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen profilen bilakaeran aipagarria da hurbileko edo familiako pertsonen kopuruaren hazkundera: 2022ko datua (262) bi aldiz handiagoa da 2006an erregistratutakoa baino (103).

Zerbitzura deitzen duten emakume biktimei dagokienez, alderdi hauek dira aipagarriak:

- Zerbitzua erabiltzen duten emakume gehienak (% 88,7) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimak dira, eta horietatik % 67,2k tratu txar forma bat baino gehiago jasan izan dute.
- Tratu txar psikologikoa kasu guztietan ageri da, bai tratu txar mota bat jasan duten emakumeen artean, bai tratu txar mota gehiago jasan duten emakumeen artean.
- Biktimen % 58,1ek ume adingabeak dituzte beren kargu.



## 1.7. ETXEBIZITZA-ARLOKO LAGUNTZAK

Gaur egun, indarkeriaren biktima diren emakumeen aldeko ekintza positiboko bi neurri daude etxebizitzaren arloan:

1. Alokairu-araubideko etxeak zuzenean esleitzea egoera larrietan eta salbuespen-egoeretan, eskatzailea udalaren edo foru-aldundiaren harrera-etxeen edo -zentroen erabiltzailea izan denean.

2022an **33 etxebizitza esleitu ziren** Bizkaian, hau da, EAEn esleitutako guztien % 57,9 (57). Eskabide horien jatorriari dagokionez, 10 eskabide Bizkaiko Foru Aldunditik iritsi ziren, 15 Bilboko Udaletik, 3 eskabide Santurtzitik, eskabide bat Erandiotik, 3 eskabide Durangoko Merindadearen Mankomunitatetik eta beste bat Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatetik. Bestalde, hiru eskabide **ukatu ziren**, baldintzak ez zituztelako betetzen. Guztira, 36 eskabide erregistratu dira Bizkaian: 28 eskabide 2022an aurkeztutakoak ziren, eta gainerako 8ak 2021etik ebazteko zirenak.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren datuek erakusten dutenaren arabera, aztertutako aldia kontuan hartuta, 2022an erregistratu zen onartutako eskaeren kopururik handiena, bai EAE osoan, bai Bizkaian.

### Onuradunen ezaugarriak

- Emakume onuradun gehienak 40 urtetik beherakoak dira (% 69,7).
- Emakume horien % 78,8 atzerriko herrialdeetan jaioko dira (ehuneko hori egonkor mantendu da aurreko ekitaldiarekin alderatzen badugu).
- Bizikidetzaren (BU) tamainari dagokionez, pertsona bakarreko familien bederatzi kasu erregistratu ziren. Gainerakoak bi, hiru eta bost laguneko familiak izan dira.

2. Puntu gehigarriak lortzea alokairuko Babes Ofizialeko Etxebizitzen promozioetako baremazioetan.

2022ko abenduaren 31n eskura dauden datuen arabera, **genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatu zuten emakumeen 691 espediente aktibo zeuden Etxebiden** (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua), Bizkaiari dagokionez. Neurri hori abian jarri zenetik, espediente aktiboen kopurua nabarmen handitu da. Datua 2013koarekin alderatzen badugu, % 123,6koa da hazkundera.

2022an **162 alta** izan ziren. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zifrek erakusten dute gora egin dutela espediente aktiboek eta altek; beraz, bi kasuetan, aztertutako aldiko zifrarik altuenak erregistratu dira.

Bestalde, etxebizitzaren esleipenen kopuruak % 73,7 egin du behera: aurreko ekitaldian 76 esleipen egin ziren, eta 2022an, berriz, 20 emakume izan dira neurri honen bidez alokairuko etxebizitza baten **esleipena lortu dutenak** Bizkaian, aztertutako aldiko kopururik txikiena.

### **Genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten emakumeen espedienteen ezaugarriak (espediente aktiboak, esleipenak, altak):**

#### **Bizikidetzaren unitatearen (BU) eraketa**

- **Espediente aktiboak** % 59,6 bi eta hiru kideko Bizikidetzaren Unitateetan bizi diren emakumeei dagozkie.
- 2022ko **esleipen** gehienak (% 80) **BUan ahaidetutako pertsonak dituzten emakumeei** dagozkie.
- **Erregistro berriei** dagokienez, emakumeen % 31,5k ez dute ahaidetutako inor Bizikidetzaren Unitatean, eta % 68,5 ahaideekin, ezkontidearekin edo bikotekidearekin bizi dira.

#### **Adina**

- **Espediente aktiboak** zati handi bat (% 68,9) **31 eta 50 urte** bitarteko emakumeei dagozkie.
- Urtean zehar egindako **esleipenen % 70**, espediente aktiboak kasuan bezala, 31 eta 50 urte bitarteko emakumeiegiokitu zaizkie.
- Erregistratutako **alta** gehienak (% 63,6) 18 eta 40 urte bitarteko emakumeek eman dituzte.

#### **Nazionalitatea**

- **Espediente aktiboetatik**, 234 emakume atzerritarrei dagozkie (% 33,9), eta 29 nazionalitate desberdin biltzen dituzte guztien artean.
- Atzerriko emakumeen ehunekoak % 25ekoa da **etxebizitza baten esleipendunak** diren emakumeen kasuan, eta lau nazionalitate desberdinetako bost emakume daude.
- **Erregistroan alta** eman duten emakumeetatik 39 (% 24,1) atzerritarrek dira, 15 nazionalitate desberdinetakoak.

## 1.8. DIRULAGUNTZAK (1/2004 Loko 27. artikulua)

2022an dirulaguntzak jasotzeko **253 eskaera**<sup>5</sup> jaso dira Bizkaitik (EAEn egindako eskaera guztien % 55), aurreko urtean baino zazpi eskaera gutxiago.

Aztertutako eskaera guztietatik, 150 **esleitu** dira, 53 **ukatu** dira eta 9 eskaera **bertan behera geratu** dira. Ekitaldia amaitzean, 41 eskaera **ebatzi gabe** zeuden.

Ondoko grafiko honetan, aztertutako epean arreta jaso duten eskaeren kopuruan izan den hazkunde nabarmena ikus daiteke: 2009koaren aldean, 2022ko kopurua urte hartakoa halako hamaika da. Onartutako eskaeren bolumenak ere nabarmen gora egin du urteetan zehar; izan ere, zortzi esleitu ziren 2009an, eta 150 eskaera, berriz, 2022an.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarritua: 2009-2011, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Barne Saila; 2012, Emakunde; 2013tik, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.

### Laguntzen zenbatekoak eta onuradunen ezaugarriak

Laguntzaren zenbatekoa, oro har, sei hilabeteko langabezia-sariari dagokion zenbatekoaren baliokidea da, eta zabaldu daiteke hamabi, hemezortzi edo hogeita lau hilabeteri dagokien kopurura, bi aldagairen arabera: biktimaren **familia-erantzukizun** (bere kargu dituen adingabeen edo ahaideen kopurua) arabera, eta biktimak nahiz biktimaren ardurapean dauden pertsonen duten **desgaitasun**-mailaren arabera (% 33koa edo gehiagokoa).

<sup>5</sup> 231 eskaera 2022an aurkeztu ziren, eta gainerakoak 2021etik ebatzi gabe zeuden eskaerak dira, 2022an izapidetu direnak.

Jasotako zenbatekoen arabera, 2022ko dirulaguntzen onuradunen banaketaren ezaugarriak honako hauek dira:

- **% 23,3k oinarrizko zenbatekoa** jaso zuen, hau da, langabeziagatik 6 hilean jasotzen den kopurua (2.712 € - 2.880 €). Aitortutako desgaitasunik eta ardurapeko ahaiderik ez duten emakumeek osatzen dute talde hori.
- **% 36,7k** langabeziako 12 hileko sariaren parekoa jaso zuen (5.559 €). Beren kargu pertsona bat duten edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten emakumeak dira.
- Beste **% 36,7k** 18 hilean jasotzen den sariaren parekoa jaso zuen (8.338 €); beren ardurapean bi ahaide edo gehiago dituzten emakumeak dira, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona bat ardurapean duten emakumeak; edo beren ardurapean pertsona bat izanik, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten emakumeak.
- Gainerako **% 3,3ak** jaso zuen kopurua (11.118 €) langabeziako 24 hilean jasotzen den kopuruaren parekoa da; hau da, emakume horiek dekretuak jasotzen dituen **kalteberatasun handieneko bost egoeretako** batean daude, beren kargu dituzten pertsonen kopuruagatik eta pertsona horien edo/eta eskaria egin duen pertsonaren desgaitasun-maila handia delako.

2022an, onuradunen **% 40k dirulaguntza handienak** (18 eta 24 hilabeteren baliokideak) jaso zituzten. 2018. urteaz geroztik, dirulaguntza handienak jasotzen dituzten emakumeen ehunekoak behera egin du urtez urte; hala ere, 2022an, ehunekoa sei puntu igo da aurreko ekitaldiarekin alderatzen badugu. Bestalde, balio absolutuetan erregistratu da aztertutako aldiko zifrarik handiena; zehazki, 60 emakumek jaso dituzte laguntza horiek.

Jaioterriari dagokionez, **emakume onuradunen % 62 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira**. 23 herrialdeetakoak dira, gehienak Latinoamerikakoak (% 71). Afrikako herrialdeetatik etorritako emakumeak % 20,4 dira, Europako herrialdeetan jaiotakoak % 8,6 eta Asiako herrialdeetan jaiotakoak, berriz, % 3,2.

Adinari dagokionez, **40 urtetik beherakoak dira** emakume onuradunen % 72,7: 18tik 30era bitarteko 57 emakume erregistratu dira (% 38) eta 31tik 40ra bitarteko 51 emakume (% 34). Gainera, onuradun adingabe bat izan da 2022an.

Bizkaian esleitutako eskaerak **33 udaletako** emakumeen artean banatzen dira. Aurreko urteetan bezala, Bilbo da emakume onuradun gehien biltzen dituen udalerrria.

## 2. POLIZIA-ESPARRUA

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren biktimizazioen estatistikatik datozen datuak aurkeztuko ditugu. Estatistika horrek *“legez kontrako egintza penal guztiak”* biltzen ditu, *“Ertzaintzan egintza penal gisa erregistratuta geratu direnak, herritar batek jarritako salaketa baten bidez edo atestatu baten bidez”*.

Sail horrek egiten duen sailkapenari jarraituz, **emakumeen aurkako indarkeria** terminoak hiru mota hartzen ditu barne, indarkeria hori gauzatzen duen pertsonarekiko harremanaren arabera:


1. **Bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeria.
2. **Familia barruko genero-indarkeria**: gizonek familia-eremuan emakumeen aurka eragindako indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik).
3. Gizonek aurreko eremuetatik kanpo emakumeen aurka eragindako **sexu-indarkeria**.

### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BIZKAIAN. EZAUGARRI NAGUSIAK

2022an, emakumeen aurkako indarkeriaren **3.194 biktimizazio** erregistratu zituen Ertzaintzak (EAEko guztien % 52), **ia bederatzigertakari egunean**. Biktimizazio-tasa (10.000 emakumeko tasa) **53,7koa** da, aurreko urteko kopurua baino bost puntu handiagoa (48,7 izan zen 2021ean).

2022an bi emakume hil ziren: bikotekideak eragindako indarkeriaren ondorioz (Bilbo) eta familia barruko indarkeriaren ondorioz (Barakaldo).

Aurreko urtearekin alderatuta, biktimizazioen bolumena % 9,8 handitu zen (2.908 gertakari izan ziren 2021ean). Aztertutako aldi osoan, **2022ko datua da erregistrorik altuena**.




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egina.

Bilakaerari dagokionez, adierazle horrek **goranzko joera** du Bizkaian. 2003tik 2022ra bitartean, kopurua % 91,3 igo da; balio absolutuetan, 2003an baino 1.524 biktimizazio gehiago jaso ziren azken urtean, hots, 2022an.

2022an, gertakari horien **emakume biktimen** kopurua 2.524koa da, eta biktimizazioen kopurua baino txikiagoa da; izan ere, biktima batek indarkeria-gertakari bat baino gehiago jasan du beharbada.

**Indarkeria-motaren** arabera, kasu gehienak (% 73,6) bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari dagozkio; % 17,8, familiabarruko indarkeriari; eta % 8,6, sexu-askatasunaren kontrako delituei.




Aurreko urtearekin alderatzen badugu, gora egin dute sexu-indarkeriak (% 22,3) eta bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeriak (% 11,3). Familia barruko indarkeria antzeko mailan mantendu da (-% 0,3).


**Lurralde-banaketari** begira, ohiko ildoari jarraiki, 2022an ere biktimizazioak **orokorrak** izan ziren lurralde osoan: indarkeria-mota horietako gertakariren bat gertatu zen Bizkaiko 112 udalerrietatik 91tan (biztanleriaren % 99 biltzen dute udalerririk). Salbuespen bakar batekin, 2.000 biztanletik gorako Bizkaiko udalerririk ez zuten erregistratu da biktimizazioen bat.

**4. irudia: EKlगतिकo biktimizazioen banaketa: kopurua eta 10.000 emakumeko tasa**

EKlगतिकo biktimizazio kopurua



EKlगतिकo emakumeen biktimizazio tasa




\* 10.000 emakumeko tasa  
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

Bizkaiko hamar udalerrri handienek (25.000 biztanletik gorakoak) izan zituzten biktimizazio gehienak: **100 gertakaritik 69** udalerrri horietako batean gertatu ziren; datu hori bat dator udalerrri horiek duten biztanleriaren bolumenarekin.

Normala den bezala, udalerrri horietako bakoitzak errealitate jakin bat du, eta errealitate horiek agerian uzten dute biktimizazioen kopurua ez dagoela biztanleen kopuruaren mende soilik. Udalerrri jakin bateko biktimizazio-kopurua eta biztanleria-bolumena (10.000 emakumeko tasa) erlazionatzen dituen adierazleak agerian jartzen duenez, alde nabarmenak daude udalerrien artean, lurraldeko batez bestekoarekin alderatuta.

Kontuan hartu behar da datu horiek (zerbitzu publikoen erregistroetatik hartuak) ez dutela adierazten fenomenoak udalerrri horietako bakoitzean duen intentsitatea, baizik eta **sistemaren erantzun-ahalmena, biztanleek baliabide horretaz egiten duten erabilera eta jarduera poliziala bera.**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egina

## Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

2022an, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik, emakumeen **2.352 biktimizazio** izan ziren Lurraldean; beraz, % 11,3 gora egin du aurreko urtearekin alderatuta. 1.770 emakume biktima izan ziren (2021ean, berriz, 1.581 izan ziren).

2022an, indarkeria mota horren ondorioz pertsona bat hil zen Bizkaian (Bilbo). 2004tik, 25 emakume hil ditu bikotekideak edo bikotekide ohiak Bizkaian.


Denboran zeharreko bilakaerak erakusten du, Ertzaintzak Bizkaian jasotako datuen arabera, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-gertakariak **hazkunde erregularra** izan dutela. **2022ko datua serieko handiena** da, ia bikoiztu egiten baitu hasierako urtean erregistratutakoa (% 96 egin du gora).



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egina

Biktimizazioen bilakaera ikusteko beste modu bat da **10.000 emakumeko tasa**, 2022an **39,6koa**.

Aldiaren hasierarekin alderatzen badugu, **14 puntutik gora igo da tasa**.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egina



Aurreko urteetan bezala, gertaeren erdiak baino gehiago (% 52) banantze-testuinguruan gertatu ziren: erasotzailea biktimaren **egungo bikotekidea ez zenean**.

**Jaioterrria** kontuan hartuta, biktimen % 55 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak ziren (971 emakume), eta % 45, berriz, atzerriko herrialdeetan jaiotakoak (799 emakume). Aurreko urtearekin alderatuta, bi talde horiek gora egin dute, baina intentsitate txikiagoarekin (% 5,5 lehenengoen eta % 20,9 bigarrenen).

Adinaren arabera, eta ohiko ildoari jarraiki, 2022an ere adin-tarte guztietako biktimak erregistratu dira eta bi heren inguru (**% 62**) **40 urtetik beherakoak dira**. Talde horren barruan, **adingabeak** 37 dira (32 izan ziren 2021ean): 36 nerabe dira, 14 eta 17 urte bitartekoak, eta 14 urteko adingabe bat.

Kopuruei dagokienez, urteko hazkundera orokorra da; izan ere, 14 urtetik beherakoen tartean izan ezik, adin-tarte guztietan igo dira, aurreko ekitaldiarekin alderatzen baditugu.

### **Familia barruko indarkeria (bikoteak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)**

2022an, Ertzaintzak emakumeen **568 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian, familia barruko indarkeriaren ondorioz. Biktimizazioen tasa **9,6** izan zen 10.000 emakumeko.

Aurreko urtekoaren antzekoa da biktimizazioen bolumena (570 gertakari 2021ean), eta, oro har, aldi horretan erregistratutako kopuruen antzekoa. Izan ere, bilakaeran dagoen desberdintasun bakarra 2020. urteko salbuespen-egoerak markatzen du, 654 gertakari erregistratu baitziren, pandemiaren eta pandemiari aurre egiteko aplikatutako neurrien esparruan (beste arreta-zerbitzu batzuetan ere nabari da familia barruko indarkeria-kasuen bolumen handiagoa).


Ohikoaren arabera, 2022an ere gertakari gehienetan erasotzailearen ama (% 43,3) edo senitartekoa (% 40,3) da biktima. Gainerako % 16,4a alaba adingabea da.

Adin-tarte guztietako biktimak erregistratu dira. Aurreko urteetan bezalaxe, familia barruko indarkeriak adingabeen artean (% 25) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 39) erakusten du maiztasun handiena.

## Sexu-indarkeria

2022an, Ertzaintzak sexu-askatasunaren aurkako delituen ondoriozko emakumeen **274 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian (271 emakumezko biktimari dagozkie). Sexu-indarkeriagatiko lurralde-tasa **4,6** biktimizaziokoa izan zen 10.000 emakumeko (3,7koa izan zen 2021ean).

Indarkeria-mota horretan orain arte erregistratutako **kopuru handiena** adierazten du 2022ko datuak. Azken bosturtekoan igoyerak izan dira urtez urte, 2020. urtearen salbuespen bakarrekin.



Oharra: 2009tik (barne), datuak erasotzailea biktimaren familia-eremukoa ez den biktimizazio kasuei buruzkoak baino ez dira. Aurreko urteetako datuek sexu-askatasunaren aurkako delitu guztiak jasotzen dituzte, biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana alde batera utzita, eta, beraz, bikotekidearen/bikotekide ohiaren eta beste familiarteko batzuen sexu-erasoak hartzen dira kontuan. Grafikoan, apurketa hori lerro etenarekin eta kolore aldaketarekin adierazten da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

2022ko biktimizazioen % 92 sexu-erasoen (% 44) edo sexu-abusuen (% 48) ondoriozko delituei dagokie<sup>6</sup>.

Indarkeria-mota horretan ohikoa denez, poliziaren bidez erregistratutako biktimak oso emakume gazteak dira, eta erdiak, gutxi gorabehera, 20 urtetik beherakoak dira (% 47,2); horien artean 93 adingabe daude. Horrenbestez, **sexu-indarkeriaren hamar biktimatik hiru baino gehixeago adingabeak dira.**

<sup>6</sup> 22/10/06tik ez dago sexu-abusuaren deliturik Zigor Kodean, 10/2022 Lege Organikoaren erreformaren arabera.

## 3. ESPARRU JUDIZIALA

### 3.1. PROZESU JUDIZIALAK

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2022an, **372 auzi zibil** sartu ziren Bizkaiko barruti judizialetan, zuzenean edo aldaketa bidez.


2014 eta 2020 urteen artean erregistratutako bolumenak behera egin ondoren, 2021ean eta 2022an gora egin du kontabilizatutako auzi zibilen kopuruak. Azken ekitaldi honetan bolumena % 16,6 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Berriro ere, adierazgarria da sartu diren auzi zibilen eta penalen arteko aldea. 2022an **4.644 auzi penal** sartu ziren. 2021eko kopuruaren aldean, % 7,7ko hazkundera izan da eta, berriro ere, aztertutako epe osoko kopururik handiena erregistratu da.

2022an 3.450 salaketa egin ziren Bizkaiko epaitegietan (aurreko urtean baino % 11,6 gehiago), eta hori da 2005etik erregistratu den datu altuena, hau da, bederatzi salaketa baino gehiago egunean. Demanda gehienak (% 63,1) biktimek jarri zituzten, eta **polizia-atestatua** izan zen gehien erabili zuten bidea (% 54,3).

629 **Babes Agindu** abiarazi dira guztira, hau da, 2021ean baino % 49,4 gehiago. Onartutako Babes Aginduei dagokienez, 2022an % 96,4 gehiago izan dira aurreko urtearekin alderatuta: 442 izan dira, aintzat hartutako aldiko kopuru handiena, hain zuzen ere. Bestalde, 187 agindu ukatu dira, eta horrek esan nahi du % 4,6 behera egin duela 2021eko kopuruarekin alderatzen badugu.


Jasotako datuen arabera, 2022an hasitako Babes Agindu guztiei dagokienez, % 70,3 onartu dira eta % 29,7 ukatu.



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuetan oinarrituta egina

Babes Aginduei buruzko datuei erreparatzen badiegu, **biktimaren nazionalitatearen** arabera, igoera handiak nabari dira espainiar nazionalitateko eta atzerriko nazionalitateko emakumeen bolumenean: espainiarren kopurua % 28,5 igo da aurreko urtearekiko. Bestalde, atzerriko nazionalitateko biktimen kopuruaren igoera nabarmenagoa da, 2021ean erregistratutakoa halako bi baita ia. Horrenbestez, hurbiltzen ari dira emakume biktima espainiarren eta atzeritarren arteko proportzioak: biktimen % 57,4 espainiarrak dira eta % 42,6, berriz, atzeritarrak.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, abiarazitako Babes Aginduen bilakaera biktimen nazionalitatearen arabera aztertuta, nabarmena da Espainiako emakumeen beherakada, eta atzerriko emakumeen kopurua, berriz, ez da askorik aldatu. 2022an, emakume atzeritarren bolumenak gora egin ondoren, aztertutako aldiko kopururik handiena erregistratu da.



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuetan oinarrituta egina

Beste alde batetik, biktimen kasuan bezala, salatutako gizonei buruzko datuek erakusten dute gorakada handiagoa izan duela atzerriko nazionalitateko gizonen kopuruak, eta, horrenbestez, aurreko urteetan baino antzekoagoak dira proportzioak. 2022an, salatutako gizonen % 56,6 espainiar nazionalitatekoak ziren, eta % 43,4 atzerriko nazionalitatekoak.

**Biktimaren eta salatutako gizonezkoaren** arteko harremanari dagokionez, kasuen % 59,6an bikotekidea edo ezkontide ohia da indarkeriaren eragilea, eta etendako harreman afektiboak dira Babes Agindu gehien biltzen dituztenak (% 51,8). Auziaren unean ezkontide edo bikotekide direnen kasuak, berriz, % 40,4 dira. Oraingo honetan bikotekideak dira ehuneko handiena dutenak (% 26,4).

**Salatutako 670 gizonezkoetatik**, % 62,4 espainiar nazionalitatekoak dira, eta % 37,6 atzerriko nazionalitatekoak. **Prozeduraren ebazpenari** dagokionez, auzibideen % 96,4an epai kondenatzaileak eman ziren. Hala ere, prozeduren amaierako formei dagozkien zenbakiek erakusten dutenaren arabera, % 22,2 bakarrik amaitu zen epai kondenatzailea emanda.

## Adingabeak: babes eta segurtasunerako kautelazko neurri zibilak

Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen babesari dagokionez, hauek dira kautelazko neurri zibil nagusiak: bisita-araubidea etetea, guraso-ahala etetea, zaintza edo jagoletza etetea, eta arriskuren edo kalteren bat saihesteko adingabeak babesteko neurria.

2022an zehar guztira 105 neurri ezarri dira adingabeak babesteko helburuz, eta horrenbestez, hori izan da neurri gehien kontabilizatu diren urtea: neurri horietatik 43 bisita-araubidea eteteari dagozkio, beste 43 zaintza eta jagoletza eteteari, eta 19 guraso-ahala eteteari.

2005etik hona, 428 neurri ezarri dira Bizkaian. Neurri horien % 45,3 zaintza eta jagoletza eteteko izan dira (194); % 26,6 bisita-araubidea etetekoak (114); adingabeak babesteko neurriak % 21,3 (91) izan dira; eta guraso-ahala eteteko agindua kasuen % 6,8an ezarri da (29). Ezarritako neurrien % 91,4 Babes Neurri baten esparruan ezarri dira.

## 4. OSASUN-ESPARRUA

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 2021ean eta 2022an Bizkaiko osasun-arloko **Larrialdietako Arretaren eta Lehen Mailako Arretaren (LMA)** arloetan hautemandako genero-indarkeriako kasuei buruz eskuratutako datuak aurkeztuko dira. Kasuak **14 urteko edo gehiagoko emakumezko**i buruzkoak dira.

### 4.1. LARRIALDI-ZERBITZUAK

2022an genero-indarkeriako 520 kasu detektatu ziren Bizkaiko larrialdi-zerbitzuetan eta ospitaletako kontsultetan. Horrek adierazten zuen % 7ko hazkundera izan zela, aurreko urteko datuen aldean, eta horrenbestez, aztertutako aldi osoko (2013-2022) kasu-kopururik altuena bihurtu zen.

Erakunde sanitarioen arabera banaketari erreparatuta, 2013tik gertatzen den bezala, Bilbo-Basurtuko ESI izan da kasu gehien erregistratu dituen erakundea (% 44,4). Ondoren Barakaldo-Sestaoko ESI eta Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI (% 18,3 eta % 18,1, hurrenez hurren). Barrualde-Galdakaoko ESI artatutako kasuen % 11,2 biltzen dira eta Uribeko ESI, berriz, % 4,6. Gainerako % 3,5 Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean detektatu da.

Aurreko urteko datuekin alderatuta, aldaketa handienak nabari dira Barakaldo-Sestaoko ESI (12 kasu gehiago artatu dira), eta Bilbo-Basurtuko ESI (2021ean baino 29 kasu gehiago). Bestalde, behera egin du Uribeko ESI eta Osasun Mentaleko Sarean hautemandako kasuen bolumenak.

**4. taula. Larrialdietan hautemandako kasuak, osasun-erakundearen arabera.**

**BLH. 2021-2022**

	2021	2022	Δ
Barakaldo-Sestaoko ESI	83	95	14,5
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	89	94	5,6
Barrualde-Galdakaoko ESI	55	58	5,5
Bilbo-Basurtuko ESI	202	231	14,4
Uribeko ESI	30	24	-20,0
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	26	18	-30,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>486</b>	<b>520</b>	<b>7,0</b>

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua. Barrualde-Galdakaoko ESIk Gernika-Lumo Ospitalea eta Galdakao-Usansolo Ospitalea barne hartzen ditu; Bilbo-Basurtuko ESIk Basurtuko Unibertsitate Ospitalea barnehartzen du; Uribeko ESIk Udulizko Alfredo Espinosa Ospitalea barne hartzen du.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egina. Osasun Saila.

Ospitaletako larrialdien arloan hautemandako kasuen % 61,7 **40 urte baino gutxiagoko** emakumezkoen kasuak dira. Larrialdietako osasun-erregistroek 50 urtetik gorako emakumeen presentzia urria islatzen dute, gainerako adin-taldeekin alderatuta: Bizkaiko Ospitaletako Larrialdi Zerbitzuen bidez hautemandako kasuen % 13,8 dira adin horretakoak.

#### 4.2. LEHEN MAILAKO ARRETA (LMA)

2022an, aztertutako aldian (2013-2022) detektatutako kasuen kopururik handiena erregistratu du Lehen Mailako Arreta Zerbitzuak. Zehazki, genero-indarkeriako 446 kasu identifikatu ziren urtean zehar.

Datua erakunde sanitarioen arabera aztertuz gero, banaketa 2021eko datuek eman zutenaren antzekoa izan zela ikusten da. Barrualde-Galdakaoko ESI da, aurreko urteetan bezala, kasu gehien hauteman zituen erakunde sanitarioa, guztien % 43rekin.

Beste alde batetik, 2021ekoaren aldean, Barakaldo-Sestaoko ESI kenduta, haren hautematea egonkor mantendu baita, datuek erakusten dute, oro har, handitu egin dela hauteman diren kasuen kopurua: Uribeko ESIk 14 kasu gehiago hauteman ditu, eta Barrualde-Galdakaoko ESI, berriz, 56 kasu gehiago hauteman dira.

**5. taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak, osasun-erakundearen arabera.**  
**BLH. 2021-2022**

	2021	2022	Δ
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	59	74	25,4
Uribeko ESI	54	68	25,9
Barakaldo-Sestaoko ESI	17	19	11,8
Barrualde-Galdakaoko ESI	136	192	41,2
Bilbo-Basurtuko ESI	68	93	36,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>334</b>	<b>446</b>	<b>33,5</b>

Oharra:ESI: Erakunde Sanitario Integratua.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egina. Osasun Saila.

Adin-taldeei erreparatzen badiegu, **kasuen ia erdiak (% 48,9) 30 eta 49 urte arteko** emakumeei dagozkie. Kasuen % 27,1 dagozkie 30 eta 39 urte bitarteko emakumeei, eta % 21,7 dira 40 eta 49 urte bitarteko emakumeak.

Lehen Mailako Arreta Zerbitzua da, betiere, **50 urtetik gorako emakumeak** gehiago agertzen diren espazioa, arretaren beste arlo batzuen aldean. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak emandako datuen arabera, gehiago agertzen dira espazio horretan, **kasuen % 23,8** izan baitira.